



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Islama eta feminismoa

MUNDU ZABALEKO erlijio garrantzitsuek —kristautasuna, judaismoa, islama edo hinduismoa; ezagunenak izateagatik garrantzitsuenak agian— oso gaizki tratatu dituzte emakumeak. Era batera edo bestera fede mota desberdin horiek emazteen rola mugiezinezko egituratzat hartu ondoren, gizonaren menpe egotera behartu dituzte.

Sinesmen horien aburuz andrearen eginkizunik eta helbururik nagusia izatea da, gizarte patriarkalen arauen arabera heziko dituen haurrengan oinarri harturik, familia patriarkalak betiko iraun dezan gero. Katolizismoaren ustez gainera, birjina izanik ama izatea lortzen bazenuen hobe. Ama Birjina da eliz horren emakumerik goraiatuena.

Mendebaldeko nazioak sortutako islam-fobia susmagarritik urrundu nahirik begirune handiz hurbildu nattaio mugimendu feminista honi. Nor gara gu emazte horiek bizi nahi duten fedea ukatzeko?

Hori guztia ikusirik, XX. mendeko 60-70eko hamarkadetan berpiztutako feministak —eliza, meskita edota sinagogak alde batera utzirik— ordura arte zeharkatzeke zeuden bide berriak jorraztera abiatu ziren, andreen nortasun berriak asmatuz, eraikiz eta sortuz. Dena den, XXI. mendeko lehenengo hamarkadan islamdar feminismoa izenarekin ezagutzen den talde zabal bat agertu da. Ohiko feministek erantzun desberdinak eman dituzte talde horren aurrean, batzuk eskandalizatu egin dira, beste askok mugimendu mota hori ukatuz erantzun dute.

Ikasle ginelarik, Espainiako historia ikasi genuenoi, musulmanak erasotzaile bezala harturik, zortzirehun urteko birkonkistaren gerla guztiak ikasarazi zizkiguten, azpiko arrazoiak berri eman gabe.

Azken urte hauetan komunikabideei esker zera erakutsarazi nahi digute: islama erlijio gaizkilea dela denontzat, emakumeentzat batez ere, beste guztiak aska-

tzaileak izan balira bezala. Egun kontrajarrak ikusten ditugu islama eta emakumea.

Musulman herriak anitzak dira, oso egoera eta prozesu ezberdinetan daude, informazio gutxi daukagu haietaz, baina horiek ez dira herri bakar batean bizi, ez dute berdin pentsatzen.

Mendebaldeko nazioak sortutako islamfobia susmagarritik urrundu nahirik begirune handiz hurbildu nattaio mugimendu feminista horri. Nor gara gu emazte horiek bizi nahi duten fedea ukatzeko?

Talde feminista horrek 2005. urtean egin zuen lehenengo bilera Bartzelonan. Ez dute Korana dagoen lez onartzen, beraiek diotenez, orain indarrean dagoen interpretazioa gizonek bakarrik egindakoa da. Koranaren hermeneutika berri bat egiten dihardute. Erabat gaitzesten dute fundamentalismo erlijioso oro. Bakoitzaren fedea eta sinesmenak ez direla nahi-taez alde batera utzi behar diote, emakumeen askatasuna islamaren barruan ere defendatu daitekeela uste dute.

Mugimendu horrek musulman guztien berdintasuna aldarrikatzen du, genero bereizketarik ez du onartzen, bizitza pribatu zein publikoan justizia sozialaren alde jokatzeko du. Asko dira mugimendu hori osatzen duten emakumeak. 2008. urtean *Islamdar feminismoa* liburua argitaratu zuen, bertan ikus dezakegu gehiengoak ikasketadun emakumeak direla, hainbat unibertsitatetan irakasle bezala lanean dihardutelarik.

Amina Wadud aipatu dezakegu, besteak beste. Amerikako Estatu Batuetan jaioetako afroamerikar hau Virginia Commonwealth unibertsitateko irakasle laguntzailea da, ikasketa filosofikoaren eta erlijiosoaren ikuspegi guztiz irekia du. Bere ikerketa lan asko islamaz eta generoaz dira. Homosexualen arteko ezkontzen alde agertu eta beste jarrera aurrerazale ugariren alde dagoelako Ulema eta Iman ofizial askoren gaitzespena bereganatu du.

Feminismoa mugimendu askatzaile, ireki, zabal eta antzizko izateko jaio zen. Ez gara nor inor ezesteko. ■

